



EGOKITU UDAKO CAMPUSA. GIPUZKOAKO CAMPUSEKO TITULAZIO DESBERDINAK EZAGUTU (5. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2022/2023

ARLOA: Anitzak

KREDITUAK: 2 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 100 euro / 1 aste, 180 euro / 2 aste

ARDURADUN AKADEMIKOA: Aimar Insausti Bello eta Errapel Ibarloza Arrizabalaga

AURKEZPENA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak abian jarritako EGOKITU programak (Euskal Gazteen Orientaziorako Ikastaroa. Talentua Unibertsitatean), prozesu hori hobetzea du helburu, unibertsitate-orientazio egokiago bat lortzearren. Horrela, ikasle bakoitzaren gaitasunari eta talentuari egokitzen zaien heziketa berariazko baten bitartez, profesional hobeagoak trebatu ahal izango ditugu. Horregatik, EGOKITU ikasle gazteen orientazio profesionala hobetzeko sortutako unibertsitate-orientaziorako funtsezko tresna da. EGOKITU 14 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako Udako Campuseko eskaintza berria da, unibertsitate errealitatera eta enpresa mundura modu ludikoan hurbil daitezen ahalbidetzen duena. Horrela, ikasle gazte horiek modu askoz ere egokiago zein eraginkorragoan ezagutu ahal izango dituzte hurrengo fasean eskura izango duten formakuntza-eskaintza; beti ere, beraiek zuzenez egiazta dezaten euren gaitasunak eta talentua ikasketa jakin batzuekin lerrokatuta dauden. Programa hau abian jartzen da honako helburu hauek erdietsi ahal izateko: - Etorkizuneko unibertsitate-ikasleen orientazio profesionala hobetzea, unibertsitate- eta unibertsitate aurreko heziketaren arteko koordinazioa ahalbidetuko duen mekanismo berritzailea garatuz. - UPV/EHUren formakuntza-eskaintza Gipuzkoako gizartearen beharretara gerturatzea. EGOKITU programak berekin dakar UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko 9 Ikastegietan Udako Formakuntza-Ikastaroak abian jartzen direla. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak koordinatutako eta kudeatuko du aipatutako programa.



ZURE BILA GABILTZA

Unibertsitate eta lanbide-mundura modu ludikoan hurbildu nahi diren DBHko 3. maila gainditu duten gazteei (17 urtekoak gehienez)

BALDINTZAK

Gurasoen baimena. 2006 eta 2008 urteen artean jaio eta DBHn edo Batxillergo ikasketak egiten ibili. / Haber nacido entre los años 2006-2008 y estar cursando ESO o Bachillerato.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2023/06/26-etik 2023/07/07-ra

EMATEKO TOKIA: Zentru desberdinetan

HIZKUNTZA: Elebiduna (gaztelania-euskara)

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza

HELBIDEA: Julianategi, Arriola Bidea, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

TELEFONOA: 943 015 955 / 943 018 504

POSTA ELEKTRONIKOA: aimar.insausti@ehu.eus eta errapel.ibarloza@ehu.eus

WEB ORRIA: <https://www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/egokitu>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.